

#udaltop14



udaltop

**UDALETAKO  
EUSKARA  
ZERBITZUEN  
TOPAKETAK**

ESKOLAZ KANPO, ZER ETA NOLA  
EGIN BEHAR DUGU HOBETO,  
HIZTUN HOBEAK SORTZEKO?

[www.udaltop.eus](http://www.udaltop.eus)

**PABLO SUBERBIOLA UNANUE**  
SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

2022.05.13

## ESKOLAZ KANPO, ZER ETA NOLA EGIN BEHAR DUGU HOBETO, HIZTUN HOBEAK SORTZEKO?

<b>1. Sarrera</b>	<b>3</b>
1.1. "Hiztun hobeak sortu"	3
1.2. "Nola egin hobeto?"	3
1.3. Ikerketen emaitzetatik proposamenak egitera	4
<b>2. Eskolaren ekarpenak eta mugak</b>	<b>6</b>
2.1. Eskolaren ekarpenak eta mugak I: ikasleen erabilera orokorra (2011-2017)	6
2.2. Eskolaren ekarpenak eta mugak II: D eredua asko aldatu da	7
2.3. Eskolaren ekarpenak eta mugak III: D eredua indartu edo osatu beharra	7
2.4. Eskolaren ekarpenak eta mugak IV: 2015etik hasita beheranzko joera	8
2.5. Eskolaren ekarpenak eta mugak V: euskalduntzea eta emaitza akademikoak	9
<b>3. Hizkuntza erabilerak eskolaz kanpo</b>	<b>10</b>
<b>4. Zer egin? Eta, nola egin?</b>	<b>13</b>
4.1. Egitura zabal eta sendo bat	13
4.2. (Euskal) Hiztun bilakatzeko prozesua	15
4.3. Presio soziala eta aukerak	17
4.4. Zentzugintza eta agentzia	19
4.5. Babesgunea	20
4.6. Hiztunarentzat errentagarri	21
<b>Erreferentziak</b>	<b>23</b>

# 1. SARRERA

Lanaren mamira sartu aurretik, jarraian, lan honen –eta 22-05-13an eginiko hitzaldiaren– izenburuaren harira, hiru ohar egin nahi genituzke. “Eskolaz kanpo, zer eta nola egin behar dugu hobeto, hiztun hobeak sortzeko?” da lan honen izenburua. Hala proposatu ziguten Udaltop 2022 Topaketaren antolatzaileek eta bere horretan mantendu dugu, jardunaldiaren izenburu orokorrarekin koherentzia mantentzearen, eta iruditzen zaigulako ulerterraza dela. Nolanahi ere, beharrezko ikusten dugu ondorengo hiru oharrak egitea:

## 1.1. “Hiztun hobeak sortu”...

“Hiztun hobeak sortzeko” diote lan honen izenbururen azken hitzek eta, gure ustez, euskararen biziberritze ahaleginetan gabiltzanontzat, “hiztunak sortu” ez da euskarazko hiztunak gehitzeko, sendotzeko, haien gaitasuna hobetzeko... ahaleginak izendatzeko modurik egokiena. Askoz egokiagoa litzateke ahalegin hori izendatzeko erabiltzea, esate baterako, “zer egin euskarazko hiztun berriak hobeto ezagutzeko?” moduko galdera bat, edo “haiengana gehiago hurbiltzeko?”, edota hiztun horiek “hobeto ulertzeko?” bezalako adierazpenak.

Esango genuke “hiztunak sortu” kontzeptuak baduela bere baitan ikuspegi inplizitu bat gaur egun eta hemen euskararen aldeko sustapenean ez zaiguna asko komeni. Batetik, biziberritze eta sustapen ahaleginetan gabiltzanontzat, gure ustez, beharrezkoa delako euskararen hiztun berrietara hurbiltzeko, haien lekuan jartzeko, eta haien bizipenak ezagutzeko ahalegin bat, kontzeptu edo adierazpen horrek jasotzen ez duena. Eta, bestetik, aipatu adierazpenean uler litekeelako badagoela udal, aldundi eta bestelako erakunde publikoetan euskararen aldeko sustapena egiten dutenengan halako botere edo gaitasun bat herritarrengan edo biharko hiztunengan eragiteko. Gure ustez, ahalmen edo botere hori dezentez mugatuagoa da “hiztun hobeak sortu” entzunda uler litekeena baino. Eta beraz, komenigarria litzateke gure adierazpenetan ere muga horiek argiago adieraztea.

## 1.2. “Nola egin hobeto?”...

“Nola egin hobeto?” entzunda, norbaitek pentsa lezake Soziolinguistika Klusterrean gaur egun “eskolaz kanpo” euskara biziberritzen saiatzeko egiten den guztia ezagutzen dugula. Eta, bistan denez, hori ez da horrela.

## 1. SARRERA

Zorionez, Soziolinguistika Klusterreko proiektuetan hainbat lankide eta erakunderekin lan-kidetzan aritzeko aukera izaten dugu, euskara biziberritzearen inguruko ikerketan, teorizazioan edo premia praktikoen inguruan. Baina, urrundik ere, horrek ez du esan nahi egiten den guztia ezagutzen dugunik. Beraz, hemen “nola egin hobeto?” galdetzen dugunean, muga hori ere argi utzi nahi genuke gure aldetik.

### *1.3. Ikerketen emaitzetatik proposamenak egitera...*

Lan honetan emango ditugun erreferentziak eta egingo ditugun proposamenak, nagusiki Soziolinguistika Klusterrean landutako lau ikerketa edo ikerketa-ildorekin daude lotuta, edo ikerketa horien datu eta ondorioetan daude oinarrituta:

- 1) [Arrue Ikerketa](#)
- 2) [Aldahitz Ikerketa](#)
- 3) [Euskara Kirolkide](#)<sup>1</sup>
- 4) [Gazteak euskararen eszenatokian: Erabileraren auzia ikerketa](#)

Nolanahi ere, soziolinguistikan izan zein zientziaren beste eremuetan, “proposamenak” egiten ditugunean, gogoan izan behar da normalean tarteko urratsak egoten direla ikerketen emaitzetatik proposamenetara (batzuetan, urrats ez ezik, jauzi ere izaten dira!).

Bi urrats hartu behar ditugu aintzat lan honetan egiten ditugun proposamenei begira. Lehenena da ikerketa baten emaitza edo datuetatik egoeraren irakurketa edo interpretaziora egiten dena. Ikerketa bidez informazioa jasotzen dugunean, normalean saiatzeko gara datu horien edo informazio horren irakurketa bat egiten. Baina ez da ahaztu behar, ikerketen emaitza eta datuetan oinarrituta irakurketa egiteko modu bat baino gehiago egoten dela beti.

Eta, bigarren urratsa, irakurketatik proposamenetara egiten dena da. Gauza bat da ikerketa batek edo batzuek ematen diguten errealitatearen ezagutza teknikitik egin genezakeen irakurketa, eta beste bat, horretatik ondorioztatzea zein den, esate baterako, euskara biziberritzeko lanetan, egin behar dena, edo lehentasuna, jakinik indarrak eta denbora mugatuak izaten direla beti.

<sup>1</sup> Euskara Kirolkide proiektuarentzat berariaz sorturiko <https://euskarakirolkide.eus> webgunean ez ezik, Soziolinguistika Klusterrearen webguneko atal honetan ere aurkituko duzue bai Euskara Kirolkide, eta bai haren aurreko fasea izan zen “D Ereduko Kirola” proiektuei buruzko informazioa: <https://soziolinguistika.eus/eu/proiektua/euskara-kirolkide/>

## 1. SARRERA

Lan honetan, beraz, ausartuko gara gorago aipaturiko ikerketek eskaintzen diguten oinarritik abiatuta proposamen batzuk egiten, Udaltop-eko antolatzaileek egindako eskaerari erantzunaz. Baina argi utzita horretarako aipaturiko bi urrats (edo jauzi) horiek ematen ari garela. Ausardiaz ematen ditugu bi urrats horiek, eta erantzukizunez ere bai, uste dugun neurrian Klusterrean –Euskara biziberritzeko ikergune izanik– badagokigula lantzen ditugun ikerketen ondorioetatik aurrera begirako proposamenak ere egitea.

## 2. ESKOLAREN EKARPENAK ETA MUGAK


Lan honen gai nagusia da “eskolaz kanpo zer eta nola egin”. Gai horretan zuzenean sartu aurretik, dena den, gaia kokatzen lagunduko diguten datu eta ideia batzuk emango ditugu.

Esaten dugu “eskolak bakarrik ezin du”, Udaltop jardunaldien aurtengo izenburuak jasotzen duen moduan. Jarraian eskainiko ditugun datu eta erreferentziek, alde batetik, eskolaren ezintasun edo muga horiek agertzeko baliagarri izan nahiko lukete. Baina, horrekin batera, nahiko genuke erreferentzia horiek oinarri bat ematea ere ondoren eskolaz kanpoko esparruan zer eta nola egin behar litzatekeen pentsatzeko edo proposamenak egiteko.

Modu laburrean azalduko ditugu erreferentzia horiek, eta horretarako EAEko datuak baliatuko ditugu. Asmoa ez da hemen erreferentzia horietan sakontzea –nahiz eta, nahi duenarentzat, bertan eskaintzen diren loturetan badagoen horretarako aukera– baizik eta, esan bezala, ondoren egingo diren proposamenei kokapen orokor (eta dokumentatu) bat ematea. Amaieran erreferentzien atalean dituzue lan horiek zerrendatuta eta, horrez gain, sarean eskura daudenen kasuan, testuan txertatuta daude loturak, bertan klikatuta zuzenean iturri horietara jo ahal izateko.

### 2.1. Eskolaren ekarpenak eta mugak I: ikasleen erabilera orokorra (2011-2017)

Lehen erreferentzia, EAEko Ikasleen Eskolako erabilera orokorraren bilakaera da, 2011 eta 2017 artean.



1. grafikoa. Soziolinguistika Klusterra – Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila. [ARRUE IKERKETA: EAEko IKASLEEN EUSKARAREN ERABILERA ESKOLA-GIROAN, 2011-2017](#). TXOSTEN EXEKUTIBOA (21. or)

## 2. ESKOLAREN EKARPENAK ETA MUGAK

Eskolako erabilera orokorra, Arrue Ikerketaren baitan, kalkulatzen da LH4 eta DBH2ko ikasleek eskolako lau egoeratan aitortzen duten hizkuntza erabilerak konbinatuz: ikaskideekin gelan, ikaskideekin jolaslekuan, irakasleei gelan, eta irakasleei gelatik kanpo. Erabilera orokor horrek adierazi nahi duena da ikaslea eskolan dagoen bitartean berak hitz egiten duena (ez berari hitz egiten diotena) zein neurritan den euskaraz (0-100 eskalan ematen den “tasa esleitu” baten bidez adierazia) (Soziolinguistika Klusterra – Eusko Jaurlaritzza 2020).

Eta, zein da joera orokorra? Lehen ideia da 2011tik 2017ra eskolako erabilera orokor hori nahiko egonkor mantendu dela bi ikasmailetan. Xehiago begiratuta, goranzko joera ahul bat adierazi dute datuek 2011tik 2015era artean, eta 2015etik 2017ra, berriz, beherakada txiki bat bi ikasmailetan. Aurrerago ikusiko dugunez, 2019ko datuan berretsi da beheranzko joera hori.

### *2.2. Eskolaren ekarpenak eta mugak II: D eredia asko aldatu da*

Esan genezake, EAE mailan –honetan Iparraldeko eta Nafarroako errealitatea oso bestelakoa da– transformazio sozial bat gertatu dela haurren eskolazte eredian azken 20-30 urteetan. Perspektiban ikusita, lorpen handia izan da hori, eragile ezberdinen lana konbinatuz lortu dena, eta ekarri duena D eredia, euskara irakaskuntzarako hizkuntza nagusi duena, gizarteko guraso gehien-gehien hautua izatea, eta zonalde eta eremu guztietan urtez urte orokortzen joatea. Besterik da, orokortu ahala, hainbat kasutan gaur egun ez dela hainbeste “hautu” bat, eta horrek ere bere ondorioak dituela.

Gero eta EAeko ikasleriaren proportzio handiago bat bere baitan biltzen joan den neurrian, dena den, D eredia urtez urte aldatuz joan da. Esango genuke azken urteetan D eredia hazi dela soziolinguistikoki ezaugarri erdaldunenak dituzten familia eta zonaldeen inkorporazio bidez, euskaratik urrunen dauden populazio zatiak batuz. Ondorioz, EAEn D eredian biltzen den ikasleriaren euskararen erabileraren bilakaera aztertzen dugunean, kontuan hartu behar dugu eredu horren barne osaketa (eta beraz, alderatzen ari garen hori, neurri batean), aldatzen ari dela urtetik urtera.

### *2.3. Eskolaren ekarpenak eta mugak III: D eredia indartu edo osatu beharra*

Ondorengo hausnarketa jasotzen da Arrue Ikerketaren 2011-2017 txostenaren ondorioetan (ibidem, 35. or.):

*“Badaude arrazoiak pentsatzeko hainbat eremu eta ikastetxetan, irakasle eta arduradunentzat, D ereduaren baitan ikasleei euskarazko ingurune eraginkor*

2. ESKOLAREN  
EKARPENAK  
ETA MUGAK

*bat eskaintzea (gero eta?) zailago suertatzen ari dela azken urteetan. Eta beraz, zabaltea komeni den hausnarketa bat da nolako osagarriak, indartzeak eta baliabide berriak behar diren zailtasun horiek orekatzeko.”*

EAEko 2011-2017 eskolako hizkuntza erabileren analisietan ateratako ondorio bat da hori, eta esango genuke joera edo behar horrek handitzen jarraitu duela ondorengo urteetan. Esango genuke, 16 urterekin euskaraz hitz egiteko gaitasun ona EAEko ikaste guztiek edo gehien-gehienek izatea lortu nahi bada, D ereduak, eta eskolak oro har, behar dituztela hainbat indartze gaur egun. Eta horrekin batera, Udaltop-eko aurtengo gaiak adierazten duen bezala, behar ditu hainbat indartze eskolatik kanpo ere. Beraz, udal batetik edo beste erakunde batetik euskara sustatzeko ekimenak aurrera begira pentsatzean kontuan hartu behar den ideia bat honakoa da: eskola ari da lan bat egiten, baina lan hori bere mugak argi adierazten ari da azken urteetan.

2.4. Eskolaren ekarpenak eta mugak IV: 2015etik hasita beheranzko joera

2011-2017 da orain arte zabalduko Arrue analisisien azken lana (2011-2019 epea aztergai duena momentuz ez da argitaratu), baina eskolako lau erabileren eta Eskolako erabilera orokorraren 2011-2019 datuen bilakaera zabaldu da dagoeneko (Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila. ISEI-IVEI 2021) .



2. grafikoa. Eusko Jaurlaritza. ISEI-IVEI. EUSKAL HEZKUNTZA-SISTEMAREN DIAGNOSTIKOA - 2021 (68. or)

2. grafiko honetan, datuak 0-100 eskala batean eman ordez, 1-5 eskala batean daude adierazita, baina axola zaiguna datuen bilakaera da.<sup>2</sup> Grafiko honetan, EAEko ikasleek eskolako lau egoe-

<sup>2</sup> Kasu honetan, grafikoaren 1 balioak adierazten du euskarazko erabilera = %0, 3 balioak adierazten du euskarazko erabilera = %50, eta 5 balioa litzateke euskarazko erabilera = %100.



## 2. ESKOLAREN EKARPENAK ETA MUGAK

ratan aitortzen dituzten hizkuntza erabileren 2011-2019 bilakaerak ikusten dira, eta marra gorriaz adierazitako Eskolako erabilera orokorrarena, lau erabilera horiek konbinatuz kalkulatzeko dena.

LH4n zein DBH2n 2015etik 2019ra erabilera orokorrak beheranzko joera bat hartu du. Ez gara hemen sartuko aztertzeraz zenbat puntu egin duen behera; nabarmendu nahi genukeen ideia da, gorago aipaturiko eskolako muga harira, eta D ereduaren eraldaketa horrekin lotuta ziu-rrenik, 2015etik aurrera, EAE mailan batez besteko Eskolako erabilera orokorrak beheranzko joera bat hartu duela LH4ko (9-10 urte) zein DBH2ko (13-14 urte) ikasleen artean.

### *2.5. Eskolaren ekarpenak eta mugak V: euskalduntzea eta emaitza akademikoak*

Eskolaren muga inguruko bosgarren eta azken erreferentzia ez dago oinarrituta Soziolinguis-tika Klusterraren azterketa batean. [Gonzalo Larruzeak bere blog-ean Paco Lunari egindako elkarrizketa](#) bat da, 2021ean egina (Luna 2021). Luna hainbat urtez ISEI-IVEIko zuzendari izan-dakoa da, eta gaur egun jada erretiroa hartuta dago.

Lunak kontuan hartzeko moduko hausnarketa bat egiten du EAEko hezkuntza sisteman azken urteetan eman den bilakaerari buruz. Besteak beste, nabarmentzen du, sozialki aintzat hartu den helburua dela eta (ahal den neurrian herritar guztiek izatea konpetenteak euskaraz eta gaztelaniaz), erronka handi bati egiten ari zaiola aurre gure hezkuntza sistema. Hizkuntza ere-duek izan duten bilakaerarekin, ikasle gehienek ikasketak hizkuntza euskara da. Baina ikasle horien proportzio garrantzitsu bat ez da iristen euskararen jabeakuntzan maila egoki bat lortze-rra, eta hori, noski, arazo bat da. Lunak nabarmentzen du horrek eragina duela, besteak beste, emaitza akademikoetan. Hala, euskararen jabeakuntzan ikasle askok dituzten gabezien eta, oro har, gizarte euskalduntzeak hezkuntza sistemarentzat suposatzen duen ahalegin izugarriak azalduko luke, Lunaren esanetan, EAEn hezkuntza arloan ikasleko egiten den inbertsiorako, emaitza akademikoak, proportzioan, behar luketenak edo espero zitezkeenak baino baxuagoak izatea.

Ahalegin asko egiten ari dira milaka profesional muga eta erronka horiei aurre egiteko, baina esango genuke, eskolaz kanpo "zer eta nola egin" diseinatzen, pentsatzen edo amesten jar-tzen denarentzat, azken muga hau ere oso kontuan hartu beharrekoa dela.

### 3. HIZKUNTZA ERABILERAK ESKOLAZ KANPO

Aurreko atalean zehar “eskolak bakarrik ezin du” ideia horrekin loturiko bost erreferentzia ikusi ondoren, atal honetan bi erreferentzia emango ditugu ikasleen eskolaz kanpoko ekintzetako hizkuntza erabilerarekin zuzenean lotutakoak. Kasu honetan ere, datuak EAE mailakoak dira.

Ondorengo grafikoak Arrue analisietan erabiltzen den aldagai baten datuak adierazten ditu, EAE mailan, LH4 eta DBH2ko ikasleentzat. Eskolaz kanpoko ekintzetan egiten den euskarazko erabilera da, eta ikasleei galdera hau eginda lortzen dira datuak: “zein hizkuntzetan hitz egiten duzu eskolaz kanpoko ekintzetan?”



3. grafikoa. Soziolinguistika Klusterra. Arrue Ikerketa. Ikasleen euskara-erabilera eskolan 2011-2019. Datuen txostena (argitaratu gabe)

Grafikoan ikus daitekeenez, datuen seriea ez dago osorik, 2017an Ebaluazio Diagnostikoa probetan galdera hori ez zelako egin, baina 2019an berreskuratu zen. Hutsune horrekin, datuek 2011tik 2019rako eskolaz kanpo ikasleen euskararen erabilerak izandako bilakaera erakusten dute (Soziolinguistika Klusterra – Eusko Jaurlaritza 2021).<sup>3</sup>


<sup>3</sup> Kasu honetan ez da txostenaren lotura eskaintzen. Datu hau Arrue analisien 2011-2019 lanetik aterata dago, baina aipatu lana argitaratu gabe dago.

3. HIZKUNTZA ERA-  
BILERAK ESKOLAZ  
KANPO JURIS-  
PRUDENTZIATIK  
ZER DAGO IKASTE-  
KO:  
LASARTE-  
ORIAKO  
ORDENANTZAREN  
EPAIEN ANALISIA

Datu hauek erakusten duten bilakaera ez dator bat gorago eskolako erabileretan ikusi dugu-narekin. Kasu honetan, DBH2ko eskolaz kanpoko euskarazko erabilera, 2011tik 2019ra maila bertsuan mantendu da, baina hor ez da 2015etik aurrera beherakadarik sumatu (eskolako ka-suan bezala). LH4ko kasuan, alde batetik, erabilera DBH2n baino hamar bat puntu altuagoa da, eta bestetik, bilakaera mailan ere datua hobea da, 2015etik 2019ra hiru puntu egin baitu gora.

Erabilera proportzio hauek alderatzen baditugu ikasle horiek eskolan eta etxean dituztenekin, esango genuke eskolaz kanpokoak bien tartean kokatzen direla: eskolakoak baino erabilera baxuagoak dira, baina etxeokak baino altuagoak. Nolanahi ere, kontuan izan behar da grafi-koan adierazitako euskarazko erabilera horiek EAEko batez bestekoak direla, eta garrantzitsua da ere horien banaketa eskualdeka. Oro har, eskolaz kanpoko euskarazko erabilera altuagoa da zonalde euskaldunagoetan, eta etxetik euskaldun diren ikasleen artean. Hala, euskaratik urrunen dauden ikasleek, haien eskolako euskara mugatua osatzeko eskolaz kanpo erabiltzea gehien behar duten haiek, aukera gutxiago izaten dute horretarako. Konpentsazio lan hori da, hain zuzen, datozen urteetarako erronketako bat.

2011-2019ko eskolaz kanpoko euskarazko erabileraren bilakaeraren osagarri, bigarren errefe-rentzia bat emango dugu jarraian, hau ere Arrue Ikerketaren datuetatik.



4. grafikoa: Soziolinguistika Klusterra – Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila. [ARRUE IKERKETA: EAEko IKASLEEN EUSKARA-REN ERABILERA ESKOLA-GIROAN, 2011-2017. TXOSTEN EXEKUTIBOA](#) (8. or)

### 3. HIZKUNTZA ERABILERAK ESKOLAZ KAN- PO JURISPRU- DENTZIATIK ZER DAGO IKASTEKO: LASARTE- ORIAKO ORDENANTZA- REN EPAIEN ANALISIA

Kasu honetan, 2017ko datuak dira 4. grafikoan jasotakoak, EAE mailakoak. Datu horiek lortzeko, ikasleei egiten zaien galdera da ea astero egiten dituzten eskolaz kanpoko jardueretan (sartu gabe zehaztera zein motatako jarduerak diren), zenbat ordu izaten diren hizkuntza bakoitzean (euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez) (Soziolinguistika Klusterra – Eusko Jaurlaritza 2020).

LH4ko ikasleen artean, euskaraz eta gaztelaniaz aritzen dira ikasleak ingelesez baino gehiago asteroko jarduera horietan, eta gaztelaniazkoa da hiru hizkuntzetan daturik altuena. Aldiz, DBH2-n, EAEko 10 ikasleak ia 6k esaten du astero gutxienez bi ordu ematen dituela ingelesez eskolaz kanpoko jardueraren batean. Suposatzen dugu –ez dakigu, informazio hori ez zaie galdetzen ikasleei– ingelesezko klase partikularretan edo antzeko jardueratan izango dela. Nolanahi ere, adin horretako ikasleen artean, ingelesezkoa da hiru hizkuntzetan erabilera daturik altuena, alde handiz. Ingelesez egiten diren jardueren datu horrek, gainera, igoera nabarmena izan du 2015etik 2017ra, azken urteetan ingelesa ikasleen eskolaz kanpoko eguneroan hartzen ari den garrantziaren erakusle. Bestalde, hemen aztergai dugun ikasleak “euskaraz hitzun” bilakatzeko aukerei eta beharrei dagokionez, azpimarratzekoa da DBH2ko ikasleen %63 batek esaten duela ez duela eskolaz kanpo euskaraz batere jarduerarik egiten asteroko maiztasunez.

## 4. ZER EGIN? ETA, NOLA EGIN?

Aurreko hiru ataletako informazioa kontuan harturik, laugarren eta azken atal honetan saiatuko gara bete-betean sartzeko antolatzaileek egindako galderan: “Eskolaz kanpo, zer eta nola egin hobeto?”

Gure helburua litzateke, Soziolinguistika Klusterrean gaiari buruz gaur egun dugun ezagutzatik, eta egoeraz zein bilakaeraz egiten dugun irakurketatik, proposatzea zer egitea den gure ustez lehentasuneko eta, horrekin batera, “nola” egiteari buruz aritzea batez ere. Hau da, erakunde eta euskara zerbitzuetatik egitasmo eta ekimen berriak diseinatzean, azpimarratzea gure ustez zer hartu behar-ko genukeen bereziki kontuan, edo nondik joan beharko luketen –gure ustez– ahaleginak.

### 4.1. Egitura zabal eta sendo bat

Gorago aipaturiko Gazteak euskararen eszenatokian lanean oso ongi jasota dago gure ustez eskolaz kanpo ikasleen euskarazko erabilera handitu nahi badugu, edo erabilera horretarako aukerak handitu nahi baditugu, edo egungo ikasleek etorkizunean euskaraz gaitasun hobea izatea nahi badugu egin behar den zerbait. Honela dio lan horren ondorioetako pasarte batek: (Hernandez et al., 2020, 112. or)

*“Azkenik, eta beste ezeren gainetik, argi ikusi dugu (hizkuntz) gizarte egitura zabal eta sendo baten beharra, datozen belaunaldien erabilera mantendu eta handitu nahi badugu. Ezagupena ez da erabilera bilakatuko egitura hori gabe, eskolatik kanpo gazteen (euskararen) erabilera sostengatuko duen egitura hori gabe.”*

Hitz gutxitan, ikerketa horren ondorioetan oso argi adierazten da gaur egungo premia handi bat. Nolabait esan, eskolak egindako lana osatzea, edo eskolak egindako lanari jarraipena ematea. Bistan denez, bi hizkuntzak ongi ezagutu eta hitz egingo dituzten herritarrez osaturiko gizarte batera iristeko, eskolak ezinbesteko oinarria jartzen du. Baina oinarri hori jartzeko eskolak, berak bakarrik, dituen gabeziak ere nabarmenak dira gaur egun.

Hala, “zer egin?” galdetzen dugunean, hori da gure ustez premia nagusietako bat: haur eta gazteei haien eskolaz kanpo jarduerak (aisialdikoak zein bestelakoak) euskaraz modu errealean egiteko aukera emango dien antolaketa eta egituraketa zabal eta sistematiko bat.

Halako eskaintza zabal batek, noski, eragile askoren arteko elkarlana eskatzen du (era guztietako jardueren antolatzaileak, erakundeak, eta abar) eta, 12-16 urteko ikasle askok eta askok

#### 4. ZER EGIN? ETA, NOLA EGIN? JURISPRUDENTZIA-TIK ZER DAGO IKASTEKO: LASARTE-ORIAKO ORDENANTZAREN EPAIEN ANALISIA

euskaraz dituzten gabeziak hobetzen lagunduko badu, iritsi behar du orokorra izatera, erabat nagusitzeraz, aukera lehenetsia izatera, nolabait. Ingurune euskaldunetan, zein erdaldunetan. Antolaketa eta eskaintza horrek, xehetasunetan sartu gabe, aukera eman behar du eskolaz kanpo haur eta gazteek egiten dituzten jarduera gehien-gehienak euskaraz izan daitezen. Euskaraz, gutxienez, entrenatzaile, begirale, arduradun eta abarren aldetik. Eta, horrekin batera, haur eta gazteek jarduera horietan euskaraz haien artean eta begiraleekin egin dezaten baldintzak sortuta.

Urte asko dira, noski, zeregin horretan urrats asko eman direla eta euskarazko eskaintza hori errealitate bat da toki askotan aspaldidanik. Eta, alor horretan hamaika eragilek egindako lanak ez dira makalak. Urrun gaude oraindik ordea eskolaz kanpoko jarduera gehien-gehienak euskaraz izango diren egoeratik, eta beharrezkoa da orokortze horretara begira lanean jarraitzea eta urrats sendoagoak eta berriak ematea.

Esaten denean gizarte elebidun batera iristea dela helburua<sup>4</sup>, hartu beharko genuke erreferentzia gisa haur eta gazteek euskara eta gaztelania, biak, errealki erabili ahal izateko moduko egoera bat, eta horren arabera finkatu tokian tokiko helburuak eta lehentasunak. Askok egin da eta asko lortu da azken urteetan, baina bistan da EAEko haur eta gazteen proportzio garrantzitsu bat urrun dagoela gaur egun euskara errealki erabiltzeko aukera horretatik. Zer esanik ez, Iparraldean eta Nafarroan. Hala, proposatzen ari garen “zer egin?” horretarako irudikatu behar genuke eskolaz kanpoko jardueren euskalduntze progresibo bat, orokorra izatera iristerainokoa.

Premia soziolinguistiko nagusietako bat da hori gaur egun. EAE mailan behintzat, esango genuke, gizartearen euskalduntzea modu desorekatuegi eta isolatuegian utzi dela “eskolaren esku”, pentsatuz bezala eskolan ikasle guztiek euskara ikasteak, bere horretan, ekarriko duela gizartearen euskalduntze bat. Ebidentzia enpiriko ugari dugu azken urteetan argi adierazten diguna hori ez dela horrela (izango), eta beraz, egungo gabeziei erantzuteko egiteko nagusi bat proposatzen ari garen hori da, gure ustez.

Proposatzen ari garen eskolaz kanpoko jardueren euskalduntze orokor horrek badu, bestalde, bere ikuspegi etikoa ere, herritarren eskubideekin eta berdintasunarekin –edo berdintasun nahiekin– lotutakoa. Zentzu horretan, komeni da gure ustez honako galdera egitea: EAEko haur eta gazteek badute eskubiderik euskaraz eta gaztelaniaz hitz egiteko gai izatera iristeko? Eta, Iparraldeko zein Nafarroakoek, zein neurritan dute eskubide hori? EAE mailan behintzat, azken urteetan maiz aipatzen da “hizkuntza berdintasun” batera iristeko nahi sozial orokorra edo. Aipatzen ari garen eskolaz kanpoko jardueren euskalduntze orokorrik gabe, dena den, herritarren zati garrantzitsu bat geratuko da aukera errealki gabe –praktikan beraz, eskubiderik gabe–

<sup>4</sup> Suposatuztat emango dugu hemen Euskal Herriko herritarren gehiengo batentzat helburu hori desiragarria dela; baina ez gara hemen sartuko gai horren xehetasunetan.

#### 4. ZER EGIN? ETA, NOLA EGIN? JURISPRUDENTZIA-TIK ZER DAGO IKASTEKO: LASARTE-ORIAKO ORDENANTZAREN EPAIEN ANALISIA

euskara eta gaztelania modu errealean erabiltzeko: gaitasunean gabeziak dituelako, bere harreman sareetan euskara ez dagoelako, euskarazko eskaintzarik eskura ez duelako, eta abar.

Halako kasuetan, urrun gaude beraz herritarrei euskaraz eta gaztelaniaz aritzeko aitortzen zaien "eskubide" teoriko hori betetzetik, eta ondorioz urrun –maiz– errazegi aipatzen den "berdintasunetik". Herritarrak euskaraz eta gaztelaniaz ongi molda daitezen eskolak egindako lana eskolaz kanpo osatzeko dagoen premia handi eta orokor hori, beraz, bada egungo haur eta gazteen eskubide zibilen eta berdintasunaren ikuspegitik ere egin beharreko lan bat, ez bakarrik euskararen sustapenaren ikuspegitik.

4.1 atal honetan saiatu gara erantzuten "zer egin?" galderari, premia handi eta zabal bat mahai gainean jarritz. Jarraian, 4.2tik 4.6ra bitarteko azpiatalen bitartez, saiatuko gara gakoak, irizpidiak eta erreferentziak ematen egin beharreko lan hori "nola egin?" zehazteko garaian gure ustez lagungarri direnak.

#### 4.2. (Euskal) Hiztun bilakatzeko prozesua

Lehen erreferentzia da (euskal) hiztun bilakatzeko haur eta gazteek egiten duten prozesuaren ideia, eta horretan galdetzea ea –eskolaz gain– zein eragilek duen –edo izan beharko lukeen– aukera eta erantzukizuna prozesu horiek osatzeko edo hobetzeko.

Suposatzen badugu gizarte honetako gehiengoaren nahia dela haur eta gazte guztiak iristea euskaraz eta erdaraz (gaztelania/frantsesa) ongi moldatzera, eta eskolak aitortzen badu, horretarako oinarriaren zati garrantzitsu bat berak jarri arren, bera bakarrik ez dela gai transformazio hori osorik bideratzeko, ez dute beste gizarte eragile batzuk ere zeregin horretan beren ekarpena egiteko erantzukizunik?

Esate baterako, kirol esparruan haur eta gazteekin lanean ari diren kirol klubek ez dute horretan erantzukizunik? Gure ustez, eskolaz kanpoko jardueren bidez eskolak egindako lana osatze horretan (4.1 atalean proposatzen aritu garena), kirolean zein eskolaz kanpoko beste jardueratan lan egiten duten erakundeek badute erantzukizuna, eta ez bakarrik erantzukizuna, oso ezaugarri egokiak dituzte gainera ekarpen handia eta garrantzitsua egiteko haur eta gazteak (euskal) hiztun bilakatzeko prozesu horretan. Kirol klubetatik, esate baterako, prozesu horretan egin daiteke lan bat eskolak –nahita ere– nekez egin dezakeena.

2016 eta 2018 artean garatu genuen [D\\_ereduko](#) kirola proiektuan eginiko ikerketan eta ateratako ondorioetan gako interesgarriak eskaintzen dira, gure ustez, norabide horretan (proiektu

4. ZER EGIN? ETA, NOLA EGIN? JURISPRUDENTZIA-TIK ZER DAGO IKASTEKO: LASARTE-ORIAKO ORDENANTZAREN EPAIEN ANALISIA

horrek jarraipena izan zuen gaur egun garatzen ari den [Euskara kirolkide](#) proiektuan). Bi ideia ekarriko ditugu hona lan horretatik (Soziolinguistika Klusterra 2019):<sup>5</sup>

- Kluben egitekoa: euskararentzat ingurune babestua sortzea (16. or).

*Kluba baldin bada helduen figura ordezkatzeko duen erakunde nagusia, bere lana litzateke hizkuntzaren inguruan giro babestu bat sortzea, hizkuntzarekiko mezu argiak eta zehatzak emanaz eta euskararen garapenerako baldintzak jarritz. Euskarari bidea ematea edo lurra jartzea litzateke bere lan nagusia.*

Esaten dugunean kirol klubek ere badutela euren erantzukizuna haur eta gazte guztiak izan dezaten aukera euskal hiztun gisa osatzeko, aipatu berri dugun lanean identifikatu zen klubaren egiteko argi bat hona ekarri duguna: "euskararentzat ingurune babestua sortzea".

Hau da, klubaren aldetik, irizpideak eta baldintza egokiak jartzea gazteek ikusi eta sentitu dezaten klub hartan euskaraz egitea badela zerbait onartua eta baloratua, eta baldintzak errealak jartzea euskarazko erabilera hori gerta dadin. Klubaren abiapuntuaren eta baldintzen arabera, modu ezberdin askotara egin liteke lan hori, baina esango genuke norabide horretan lan asko dagoela egiteko, eta klub askok eta askok urrats berriak eman ditzaketela haien jarduna eta ingurunea gazteek euskaraz egiteko "ingurune babestu" gisa sentitzera iristeko bidean.

D *ereduko kirola* lanetik hona ekarriko dugun beste ideiak, berriz, kirol taldean eta gazteek haren atxikimendu eta konpromisoan jartzen du arreta:

- Gazteen hizkuntza jokaera taldearekiko konpromisoan kokatu (16. or).

*Gaztetxoek kirolean bilatzen duten esperientzia aberatsa eta gozagarria babestu behar da, hori baita eremu honek eurekiko duen erakargarritasuna. Baina, aldi berean, klubarekiko eta bere taldearekiko konpromisoa argi eduki behar dute. Bere hizkuntza jokaera bete beharreko araua baino, bete beharreko konpromiso horren parte izango litzateke.*

Maiz entzuten dugun esaldi bat da: "gazte hauek, euskaraz badakite, baina ez dute egiten". Eta maiz esaldi hori aipatzen da adierazteko ez dela ulertzen gazteen jokaera hori, ez dakigula nolatan ez duten egiten euskaraz. Halakoetan, gogoan izatea komeni zaigun ideia bat da jokaera hori ez dela kasualitatez izaten. Noski, arrazoi edo baldintzatzaile askoren konbinazioaren emaitza izaten da jokaera bat eta, maiz, pentsatu behar genuke, gazteak, –teorian edo– euskaraz egiteko aukera izanik, egiten ez dutenean, seguruenik, gu ez bezalako egoeraren

<sup>5</sup> D *ereduko kirola* ikerketa-ekintza proiektua. Laburpena. Sarean eskura: [https://soziolinguistika.eus/wp-content/uploads/2020/05/d\\_ereduko\\_kirola\\_laburpena\\_1.pdf](https://soziolinguistika.eus/wp-content/uploads/2020/05/d_ereduko_kirola_laburpena_1.pdf)



#### 4. ZER EGIN? ETA, NOLA EGIN? JURISPRUDENTZIA-TIK ZER DAGO IKASTEKO: LASARTE-ORIAKO ORDENANTZAREN EPAIEN ANALISIA

irakurketa bat ari direla egiten. Dena delako arrazoi edo baldintzatzaileengatik, gazteek hainbat egoeratan egiten duten irakurketa da ez zaiela komeni euskaraz egitea, edo euskara ez dela egoera horretan hitz egiteko duten aukerarik onena.

Aipatu berri dugun D ereduko kirola lanean jasota dagoen hausnarketa bat honakoa da: “ez eskatu gazteei modu pertsonalean egitea aurre arau sozial bati”. Arau inplizitu bat ezarrita edo zabaldua dagoenean, alferrik eskatuko diegu gazteei bakarka edo banako gisa hari aurre egitea. Babes bat behar da horretarako, gorputz sozial bat, talde bat.

Zentzu horretan, aipatu lanean proposatzen da kirol talde bat izan daitekeela “lur” oso egoki eta emankor bat hizkuntzaren erabileraren inguruan dinamika berriak lantzeko, edo haiei leku egiteko. Oso kontuan hartzekoa da, alde horretatik, 12-16 urte bitarteko gazteentzat, beren kirol taldearekin duten harremana oso elementu indartsua izaten dela, oso garrantzitsua beren bizitzetan zein euren identitatearen osaketan. Konpromiso eta sentimendu potenteak daude hor tartean. Oso garrantzitsu zaie, esate baterako, talde horretan onartuak sentitzea, edo entrenatzaileak haiei buruz duen iritzia, edo asteburuko partidarako deialdian sartzea, edo taldeko norbaitekin liskarra izan duten, eta abar.

Hori kontuan izanik, hizkuntzaren erabilerari begirako lanketak egiteko aipatu proiektuan identifikatu zen aukera emankor bat da hizkuntzarekiko konpromisoa kokatzea gaztetxo horiek kirol taldearekin duten konpromiso horren baitan. Noski, gazteei protagonismoa emanaz, eta onartuz konpromiso horri talde horrek eman nahi dion forma edo modua, baina gaia planteatuz eta testuinguru horretan landuz.

Bestalde, gai hori kirol taldean planteatzeko garaian, oso garrantzitsua da entrenatzaileak zein klubak berak gaiari nolako garrantzia aitortzen dioten eta nola bideratzen duten. Baina ideia da taldeari aukera ematea hausnartzeko euskarazko erabilerak haien taldean zein leku izatea nahi duten. Izan dezake orain duena baina leku zabalagoa? Nola sentituko lirateke kasu horretan? Eta abar. Klub batek bere jokalariek euskaraz gehiago egiteko aukera izatean duen erantzukizunari heltzen badio, aipatzen ari garen esparruan lanerako aukera onak eta ugariak daudela esango genuke.

#### *4.3. Presio soziala eta aukerak*

Eta zergatik esaten dugu haur eta gazteek euskara erabiltzeko aukerak handitzeko “ingurune babestuak” eratu behar direla?

4. ZER EGIN? ETA,  
NOLA EGIN?  
JURISPRU-  
DENTZIATIK ZER  
DAGO IKASTEKO:  
LASARTE-  
ORIAKO  
ORDENANTZA-  
REN EPAIEN  
ANALISIA

Ondorengo aipu hau Jaime Altuna antropologoak BAT aldizkarian argitaraturiko artikuluko batekoa da (Altuna 2015):

*"Laburbilduz, beraz, hizkuntza bat hitz egiteak talde edo tribu baten partaide bihurtzea dakar. Gure ikerketan aztertutako kasuan euskara Zurriola ikastolako ikasleen talde identitate ezau-garri litzateke. Baina, etiketa hau arazotsua suertatzen da euskara ez delako adin honetan prestigioa duen hizkuntza eta Zurriolako nerabeen artean etiketa honi uko egiteko beharra sentitzen dute beste praktika komunitateetan era egokian agertu ahal izateko."*

Altunaren ikerketa hori lan etnografiko txiki bat da, ikastola bateko nerabeekin eginikoa, baina gure ustez oso adierazgarria da deskribatzen duen errealitate hori, eta oso zabaldua euskal gizartean. Nerabeak une batez alde batera utziz, zein helduk ez du, bere lan jardueran edo bere harreman sozialetan hainbat girotan sentitu "euskaraz egiten duenaren etiketari uko" egin behar hori? Ziurrenik, halako ikerketa gehiago eginda, adin eta esparru ezberdinetan, askotan topatuko genuke "uko egiteko" behar hori, edo presio hori.

Uko egin, ez zaigulako komeni segun eta zein harreman edo taldetan euskaldun gisa agertzea, horrekin hango kideekiko nolabait "galdu" egiten dugulako, edo sentipena dugulako ez dela bereziki ongi ikusia edo hartua izango. Edo, zalantza dugulako zein emaitza izango duen eta, badaezpada, nahiago dugulako ez arriskatu.

Ildo horretatik, eskolaz kanpo zer egin eta nola egin pentsatzen ari garenean, uste dugu errealitate edo presio horiek oso kontuan izan behar ditugula. Izan ere, nahi dugunean gazteek euskaraz egin dezaten (euren kirol jardueran, adibidez), segun nola, batzuetan eskatzen ari gara zerbait haiei prezio bat paga arazten diena, edo euren gain hartzea etiketa bat zama izango zaiena, edo behintzat punturik irabazteko balioko ez diena.

Zentzu horretan, hori da gure ustez gako garrantzitsu bat eskolaz kanpo zer eta nola egin pentsatzeko garaian. Segun eta zein baldintzetan, zein girotan eta abar, gazteentzat euskaraz egiteak suposa dezake zama moduko bat eta segun zein baldintzatan, aldiz, ez. Ondorioz, hori da, gure ustez euskararen biziberritzean ari den teknikari batek ongi landu beharreko gai bat: pentsatzea, testuinguru jakin batean, zein baldintza sortuta edo nola planteatuta izan dezakeen euskaraz egiteak nolabaiteko zama konnotazioa gazte horientzat, eta aldiz, zein baldintzatan ez lukeen izango? Eta saiatu haien zama zamarik ekarriko ez duten erabilera baldintzak edo egoerak sortzen edo eraikitzen.

Puntu honetan, bestalde, komeni da gogora ekartzea testuaren hasieran aipatu dugun kontu bat. Aipatzen genuen, komeni zela ahalegina egitea gazteak hiztun gisa "hobeto ezagutzeko"

4. ZER EGIN? ETA,  
NOLA EGIN?  
JURISPRU-  
DENTZIATIK ZER  
DAGO IKASTEKO:  
LASARTE-  
ORIAKO  
ORDENANTZA-  
REN EPAIEN  
ANALISIA

edo haiengana “gehiago hurbiltzeko”. Gazteentzat eskaintza berri bat sortu nahi dugunean, eta saiatu nahi badugu testuinguru horretan euskarazko erabilera formulatzen haientzat zama edo kalte ez izateko modu batean, oso lagungarri izango zaigu gazte horiek hurbil xamarretik ezagutzea.

#### 4.4. Zentzugintza eta agentzia

Beste bi elementu ekarriko ditugu jarraian, gure ustez “zer eta nola” egin horretan oso lagungarriak edo kontuan hartzekoak. Lehen Eduardo Apodakak Udaltop jardunaldietan bertan proposaturiko kontzeptu bat da, 2013an bertan emandako hitzaldian: zentzugintza (Apodaka 2013).

Bat egiten dugu Apodakarekin esaten duenean, gurea bezalako biziberritze ahalegin batean, hizkuntza praktika berriak (euskarazko erabilera berriak) abiatu eta egonkortu nahi direnean, gakoetako bat dela lortzea praktikek zentzua izatea partaideentzat. Ez bada lortzen “zentzugintza” hori ongi egitea, eta dena delako praktika ez bada iristen gutxieneko zentzu hori izatera, nekez lortuko du aurrera egitea.

Ez dago, noski, formula magikorik aldezturik jakiteko testuinguru jakin batean hiztun talde batentzat nolako praktikek izango duten zentzua eta nolakok ez. Baina, gure ustez, biziberritze lanetan ahalegina egin nahi duenarentzat, lanerako gako oso baliagarria da kontziente izatea praktika berriek zentzu eraikitze edo elikatze bat eskatzen dutela, aurrera egin eta egonkortuko badira.

Lotura zuzena du horrek Aldahitz Ikerketan azken urteetan atera ditugun zenbait ondoriorekin. Egiten dugunean Eusle metodologiaren emaitzen azterketa, eta galdetzen diogunean gure buruari nolatan metodologia hori eraginkor suertatzen den talde baten euskarazko erabilera handitzeko, gure ondorio bat da, metodologiaren diseinuari esker, talde batek halako esperientzia bat garatzean hartzen duen erabaki kolektiboak eta haren berrespenak “zentzua eta zilegitasuna” ematen diela talde horren baitako euskarazko praktika berriei. Erabaki kolektiboaren harira izendatzen diren eusleek euskaraz egiten dute, ez haiei egun horretan hala bururatu zaielako, taldeak hala erabaki eta eskatu dielako baizik. Eta horrek, maiz balorazioetan esperientzia horien partaideek beraiek aipatu ohi duten moduan, zentzua ematen dio jokaera horri, eta babestu egiten du, bideragarri eginaz (Jauregi eta Suberbiola 2018).

Eta, zentzuarekin oso lotuta, hona ekarri nahi genukeen bigarren elementu bat agentziarena da. Oso kontuan hartzekoa hori ere eskolatik kanpo “zer eta nola” egin lantzen ari garenean.

4. ZER EGIN? ETA,  
NOLA EGIN?  
JURISPRU-  
DENTZIATIK ZER  
DAGO IKASTEKO:  
LASARTE-  
ORIAKO  
ORDENANTZA-  
REN EPAIEN  
ANALISIA

Beste lekuren batean aurrez idatzi bezala (Suberbiola 2021), gure ustez, jarduera batean nahi dugunean praktika berri batzuk sustatzea, edo hizkuntzaren erabileran aldaketaren bat erraztea, oinarrizko kontu bat da hori: nor dator hori proposatzera? Eta, nola dator? Noren ekimena da aldaketa hori? Noren nahia? Nola landu da? Eta abar.

Erraz gertatu liteke, aldaketa bat bultzatu nahi eta, adibidez, pentsatzea nahikoa dela entrenatzaile bati proposatzea jokalariekin euskaraz egin dezan. Eta, kasu batzuetan, behar bada, nahikoa izan liteke. Baina, beste askotan ez da izango. Eta, halakoetan, oso garrantzitsua izango da entrenatzaile horri, edo talde horri nork eta nola proposatzen dion aldaketa edo erronka, zein giro sortzen den horretarako, babesik eskaintzen zaion, nola eragiten dion halako balizko aldaketa batek entrenatzaile horren eta jokalaria horien arteko harremanari, eta abar. Gure ustez, zentzugintzarekin batera, agentziaren gaia arretaz zaintzeak, eta kasuan kasuko testuingururako prozesua ongi zaintzen saiatzeak asko hobetu ditzake praktika berriak bideragarri –eta partaideentzat gustagarri– izateko aukerak.

#### 4.5. Babesgunea

Hona ekarri nahi genukeen beste erreferentzia edo kontzeptu gure ustez lagungarri bat babesgunearena da. Kontzeptu honen inguruan ari gara –besteak beste– lanean [Euskara Kirolkide](#) proiektuan gaur egun (gorago aipaturiko [D ereduko kirola](#) proiektuaren jarraipena izan dena), EHUKo Jone Miren Hernandez, Jaime Altuna eta beste ikertzaile batzuekin. Klusterretik, Maialen Iñarra da arduraduna eta ikerketa taldeko partaidea. Oraindik ikerketan eta lanketan dagoen kontzeptua da, baina hiru ikertzaile horiek iaz BAT aldizkarian gaiari buruz argitaratutako artikuluan, badago dagoeneko ezaugarri nagusien deskripzio bat, lanerako lagungarri izan litekeena (Hernandez et. al. 2021). Hemen mugatuko gara artikuluko horretatik ideia nagusi batzuk ekartzera.

“Babesgune” esaten dugunean, izenagatik, badirudi “gune” bati buruz ari garela; eta bai, bada neurri batean gune bat, baina ez da gune bat bakarrik. Arnasgunea kontzeptuarekin ere badu lotura, baina babesgune bat ez da arnasgune bat. Horrez gain, azpimarratzekoa da babesgunearen prozesu izaera.

Babesgunea eremu seguru bat da, non (euskararen) hiztun gisa entrenatu gaitzkeen, eta probak egin, oso neurtuak edo ebaluatuak izan gabe; epaituak sentitu gabe. Oso garrantzitsua da gure ustez ideia hau, hizkuntza praktika berri batzuk sustatu nahi ditugunean, edo praktika aldaketa bati bide eman nahi diogunean. Euskaraz egiteko joera, ohitura handirik ez duenarentzat, erraztasun edo ziurtasun handirik ez duenarentzat, elementu oso garrantzitsua da senti-

4. ZER EGIN? ETA,  
NOLA EGIN?  
JURISPRU-  
DENTZIATIK ZER  
DAGO IKASTEKO:  
LASARTE-  
ORIAKO  
ORDENANTZA-  
REN EPAIEN  
ANALISIA

tzea testuinguru batean bere euskara erabiltzen has daitekeela, epaitua sentitu gabe. Halakorik eraiki ezean, kasu askotan zaila izango da hiztun talde batek praktika berri batek eskatzen duen jarrera irekia izatea. Eta jarrera ireki hori gabe, kasu askotan, praktika berri baterako atea aldez aurretik izango ditugu itxita.

Kirol klub edo talde bat euskara erabiltzeko babesgune denean, taldea –une edo egoera batzuetan behintzat– izango da euskararen erabilerarako probarako espazio moduko bat. Espazio bat, non, besteak beste, euskara erabiltzearen inguruan ditudan zalantzak beldurrik gabe agertu ditzakedan, non besteen aurrean gai horretan zaugarri agertu naitekeen, horren gaineko epairik jaso gabe. Halako babesgune batean, aukerak sortzen dira –edo sor daitezke– erabilerari berrietarako eta, praktika berri horietan jardun ahala, baita konfiantza hartzen joateko ere.

Gorago aipatu bezala, babesgune bat ez da une oro euskaraz egiten den leku bat; ez da Arnasgune bat (Zalbide 2019). Euskararen babesgune batean, erdara ere presente dago, baina euskarak garrantzia dauka, baloratua da, eta bertan parte hartzen dutenek hautematen dute hura badela euskaraz egiteko moduko leku bat, zentzua sumatzen diote han euskaraz egiteari, badaudelako horretarako baldintzak edo giroa.

Klub batean, erakunde batean, euskaraz egiteko ohiturarik ez duten haur eta gazteentzat, halako ezaugarriak dituzten guneak, dinamikak, prozesuak... eratzen direnean, aipatu ikertzaileen orain arteko lanek adierazten dute eman daitezkeela baldintzak ordura arteko hizkuntza praktika batzuk birpentsatzeko eta negoziatzeko. Baldintza horietan, euskararen aldera *muda* bat gertatzeko aukerak zabaltzen dira (Pujolar et. al. 2017).

#### 4.6. Hiztunarentzat errentagarri

Bukatzeko, egin nahi genuke lotura moduko bat hiztunaren –norbanakoaren– eta gizarteko egitura edo joera nagusien artean. Gorago aipatutako Gazteak euskararen eszenatokian lanaren ondorioetan, badago egungo gazteen hizkuntza praktikei buruzko aipamen oso grafiko bat. Eta dio, hainbat egoeratan, euskaraz hitz egiteko ongi moldatzen diren gazteak aritzen direla etengabe euskararekin “konektatzen eta deskonektatzen, batetik bestera igaroz, naturaltasun osoz” (Hernandez et al. 2020, 105 or.). Batetik bestera ibiltze horrek lagun eta ezagunekin egoera deserosoak edota tentsioak ekiditea luke helburu.

Esan ohi da gazteen jokaera izaten dela gizarte batean helduen jokaeraren ispilu bat. Eta, esango genuke, gai honetan, gaur egungo gazteen “konektatu/deskonektatu” hori badela metafora polita gazte horiek –EAEn behintzat– hautematen duten euskararekiko errealitatearena.

4. ZER EGIN? ETA,  
NOLA EGIN?  
JURISPRU-  
DENTZIATIK ZER  
DAGO IKASTEKO:  
LASARTE-  
ORIAKO  
ORDENANTZA-  
REN EPAIEN  
ANALISIA

Pentsa genezake –hori da behintzat guk egiten dugun irakurketa– konektatu/deskonektatu egiten dutela, hori delako gizarte mailan euskarekiko sumatzen duten jokaera. Hau da, gizarte bat, teoriarik euskararen alde dagoena, baina praktikan, aldekatasun hori egoera eta testuinguru mugatu batzuetan soilik aplikatzen duena.

Beste hitz batzuetan, esan genezake, EAEko gazteek izan dezaketela ETB1 / ETB2 gizarte batean bizitzearen sententzia. Hau da, gizarte bat, bi hizkuntza –bi kanal– dituen, baina euskararen aldekoak diren erakunde publikoetatik ari zaienen ere, baliabiderik gehienak eta apustu nagusiak gaztelaniazko atalean egiten dituen. Eta, adibide modura, entretenimenduko produktu sinboliko/mediatiko nagusi gisa “El Conquis” proposatzen duena<sup>6</sup>. Noski, gazteek erraz sumatzen dute politikoki eta kulturalki non eta zertan jartzen den indarra gizarte batean eta, tira, hori baldin bada proposatzen zaien joko-zelai soziala, haiek ere –denok bezala– egokitu egiten dira horretara.

Saio honen galdera nagusira itzuliz, galdetzen dugunean “zer eta nola egin eskolaz kanpo?” gure ustez funtsezkoa da aipatzen ari garen guzti hau. Eta, aurrera ere, gure ustez gazteek jarraituko dute egokitzen gizarte mailan proposatzen zaizkien eszenatoki eta errealitateetara eta, euskaraz egingo dute, haien artean komenigarria den egoeratan, –pertsonek edo talde gisa– errentagarria zaien egoeratan, eta euskaraz egiteari zentzua sumatzen dioten egoeratan. Eta, gorago klub-etarako babesgunearen ideiarekin aipatu dugun moduan, maila orokorrago batean, gizarte mailan, erakundeetatik eta gizartean erreferentzialak diren guneetatik egiten denak, zuzenean eta zeharka, nabarmen baldintzatzen ditu euskaraz hitz egiteak zentzua duen eta ez duen guneak eta egoerak.

Hala, gazteek, kasu askotan gainera euskaraz egiteko baliabide zein erraztasun aldetik gabezia nabarmenak izanik, jokatu dute aukeratarik egokituz eta euskara erabiliz haien artean zentzua duela sumatzen duten egoeratan. Baliagarria zaien egoeratan, eta epaituak sentitzen ez diren egoeratan. Eta, hala izan ezean, kasu askotan ez dute euskaraz egingo; izan ere, badute eskura beste tresna bat (gaztelania edo frantsesa), primeran funtzionatzen diena, eta gainera erabiltzeagatik inork epaitzen ez dituen.

Aurrera begira, beraz, gizarte elebidun bat izateko eskola egiten ari den lan handi hori eskolaz kanpo –gaur arte baino “gehiago eta hobeto”– osatu nahi bada, jarraipena eman nahi bazaio lan horri, beharrezkoa izango da hiztunen eta hiztun taldeen lekuan jartzea, eta eraikitzea han eta hemen jarduerak eta testuinguruak –talde jakinen errealitate mikrotik hasi eta gizarte mailako politika eta kultura orokorretara– non euskaraz egiteak merezikiko duen, eta zentzua izango duen.

<sup>6</sup> <https://www.eitb.eus/es/television/programas/el-conquistador/>





## ERREFERENTZIAK

- Altuna J. (2015) "Euskara pasilloetan galdua. Praktiken aldaketak eta hizkuntza mudantzak nerabezaroan", *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 97, 39-65. or. Sarean eskura: [https://soziolinguistika.eus/files/jaime\\_altuna\\_bat97.pdf](https://soziolinguistika.eus/files/jaime_altuna_bat97.pdf)
- Apodaka, E. (2013) "Euskaraz jarduteko aktibazioa: ideia zenbait Psikologia Sozialetik", *Udaltop Jardunaldiak 2013*, Lasarte-Oria. Sarean eskura: <https://www.udaltop.eus/documents/374239/482555/Eduardo+Apodaka.+Txostena.pdf/7b3e84a9-b76b-a3c1-318f-806aab56ffc2>
- Eusko Jaurlaritz. Hezkuntza Saila. ISEI-IVEI (2021) *Euskal Hezkuntza-Sistema-ren diagnostikoa 2021*. Sarean eskura: [https://isei-ivei.euskadi.eus/documents/635622/0/euskaratxostena\\_ekainak\\_25\\_azkena.pdf/55e252e1-c298-325e-02fc-647750a83084](https://isei-ivei.euskadi.eus/documents/635622/0/euskaratxostena_ekainak_25_azkena.pdf/55e252e1-c298-325e-02fc-647750a83084)
- Jauregi, P., Suberbiola, P. (2018) "Eusle metodologia: gaztelanian finkatutako hizkuntza-ohituretatik euskarazkoetara lan munduan", *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 107, 97-131. or. Sarean eskura: [https://soziolinguistika.eus/files/06\\_pello\\_jauregi\\_eta\\_al\\_107.pdf](https://soziolinguistika.eus/files/06_pello_jauregi_eta_al_107.pdf)
- Hernandez, J.M., Iñarra, M., Altuna J. (2021) "Babesguneak: euskal hiztun gazteak aktibatzeak aukera", *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 120, 47-72. or. Sarean eskura: [file:///D:/Dokumentuak/Downloads/03\\_Jone-M.-Hernandez-et-al-120\\_BehinBetikoa-kysbsa.pdf](file:///D:/Dokumentuak/Downloads/03_Jone-M.-Hernandez-et-al-120_BehinBetikoa-kysbsa.pdf)
- Hernandez, J.M., Beitia, I., Ozaita, J., Santamaria, A., Altuna, O. (2020) *Gazteak euskararen eszenatokian: erabileraren auzia. Euskararen erabilerarekin lotura duten faktore kualitatiboak*. Soziolinguistika Klusterra. Sarean eskura: [https://soziolinguistika.eus/wp-content/uploads/2021/03/gazteak\\_euskararen\\_eszenatokian\\_txostena2.pdf](https://soziolinguistika.eus/wp-content/uploads/2021/03/gazteak_euskararen_eszenatokian_txostena2.pdf)
- Luna, F. (2021) "En la educación vasca tenemos nuestro rinoceronte gris". Gon-



zalo Larruzea blog-a. Paco Lunari elkarrizketa. Sarean eskura:

<https://gonzalolarruzea.com/2021/04/23/paco-luna-en-la-educacion-vasca-tene-mos-nuestro-rinoceronte-gris/#more-1518>

-Pujolar, J., González, I., Martínez, R. (2017) "Gazte katalanen muda linguistikoak, *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 104, 51-70. or. Sarean eskura:

[https://soziolinguistika.eus/files/pujolar\\_et\\_al\\_bat104.pdf](https://soziolinguistika.eus/files/pujolar_et_al_bat104.pdf)

-Soziolinguistika Klusterra (2019) "*D ereduko kirola*" ikerketa-ekintza proiektua (2016-2018). *Laburpena*. Sarean eskura:

[https://soziolinguistika.eus/wp-content/uploads/2020/05/d\\_ereduko\\_kirola\\_laburpena\\_1.pdf](https://soziolinguistika.eus/wp-content/uploads/2020/05/d_ereduko_kirola_laburpena_1.pdf)

-Soziolinguistika Klusterra – Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila (2021) *Arrue Ikerketa: EAEko Ikasleen Euskararen Erabilera Eskola-giroan, 2011-2019. Datuen txostena*. Argitaratu gabeko txostena.

-Soziolinguistika Klusterra – Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila (2020) *Arrue Ikerketa: EAEko Ikasleen Euskararen Erabilera Eskola-giroan, 2011-2017. Txosten exekutiboa*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Sarean eskura:

[https://soziolinguistika.eus/wp-content/uploads/2013/03/arrue\\_2011-2017\\_eus.pdf](https://soziolinguistika.eus/wp-content/uploads/2013/03/arrue_2011-2017_eus.pdf)

-Suberbiola, P (2021) "Zer norabidetan jardun behar dugu gazte-nerabeen artean euskararen erabilera igotzeko?", *Hik hasi: euskal heziketarako aldizkaria* 257, 36-38. or. Sarean eskura:

[http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20210401/ZER\\_NORABIDETAN\\_JARDUN\\_BEHAR\\_DUGU\\_GAZTE-NERABEEN\\_ARTEAN\\_EUSKARAREN\\_ERABILERA\\_IGOTZEKO](http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20210401/ZER_NORABIDETAN_JARDUN_BEHAR_DUGU_GAZTE-NERABEEN_ARTEAN_EUSKARAREN_ERABILERA_IGOTZEKO)

-Zalbide, M. (2019) "Arnasguneak. Etorbizuneko erronkak", *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 110, 11-78. or. Sarean eskura:

[https://soziolinguistika.eus/files/01\\_mikel\\_zalbide\\_110.pdf](https://soziolinguistika.eus/files/01_mikel_zalbide_110.pdf)





udaltop

**UDALETAKO  
EUSKARA  
ZERBITZUEN  
TOPAKETAK**

[www.udaltop.eus](http://www.udaltop.eus)